

## Puntu interesgarriak Puntos de interés



### Hernaniko Ibilbide sarea

Red de senderos de Hernani

5,6 km. 1:20 h. 283 m.

Mendez mende Usoko bailara sortu duen izen bereko errekaen lerroa jarraituz, hainbat fauna eta flora espezierentzako babesleku bikaina den harana ezagutzen joango gara. Ibilbidean zehar ere, gizakiak historian zehar utzitako bailarako baliabide naturalen ustialetaren aztarna diren arrastoak ikusiko ditugu.

El recorrido sigue el curso del arroyo Usoko. Este da nombre a la cuenca que ha surcado con el paso de los tiempos e iremos conociendo el valle que se ha conformado como refugio valioso de la fauna y la flora del entorno. A lo largo del recorrido además apreciaremos muestras de la explotación de los recursos naturales que el ser humano a lo largo de la historia ha realizado en la zona.

### Hernaniko ibilbide sarea osatzen duten ibilbideak:

- 1 Santa Barbara HIU-1
- 2 Sagardotegiak HIU-2
- 3 Oindiri bira HIU-3
- 4 Urruzuno HIU-4
- 5 Epele PR-Gi 1002
- 6 Ereñotzu SL-Gi 1002
- 7 Oberan PR-Gi 1001
- 8 Larregain
- 9 Usokori bira
- 10 Latse
- 11 Aparrain

### Informazio praktikoa

Ibilbide hau berez ez dago seinaleztatuta. Zailtasun gabeko ibilbidea da. Hasieratik 2 kilometrotara (0:25 minututara) harreta jarri behar dugu; jarraitzen dugun pista nagusia utzi eta ezkerretik gorantz doan pista batetik desbideratu behar dugu. Ibilbidearen erdialdean Akolako atsedenekua dugu. Itzultzeko, asfalto saihestearren, baso ezberdinak zeharkatzen dituen bidezidor eder batetik jeitsiko gara.

### Información práctica

Este recorrido no tiene señalización específica para él. Recorrido sin dificultad. Hay que prestar mucha atención al punto en el cual deberemos abandonar la pista principal: exactamente a los 2 kilómetros (0:25 minutos) del inicio del recorrido hay que abandonarla para coger una pista que sale por la izquierda y es ascendente. A mitad del recorrido podemos hacer una parada en el área recreativa de Akola. El descenso, intentando evitar en lo posible las pistas asfaltadas, se adentra en bosques por senderos pintorescos.

**A** **Usokoerreka, ola zaharra eta Txirritaren oroigarria.** Latsera iristen ari garela Usoko errekaekin egingo dugu topo, hainbat fauna eta flora espezie mehatxatzen bizileku den bailarari izena ematen dion errekaekin. Latsen bertan, garai bateko ola zaharra aurkituko dugu, alkohola (erretzekoa eta masaiatzekoa), ozpina, alkitrana eta egur ikatza egiten ziren gunea. Gainera, Txirritaren oroigarria bertsolari hernaniarraren jaioleku izan zen baserriaren alboan kokatzen da, bailarara sartu nahi duenari ongi etorria eginez.

**Arroyo Usoko, fábrica y monumento a Txirrita.** Llegando a Latse nos encontramos con el arroyo de Usokoerreka, arroyo que da nombre también al valle y es hábitat de varias especies en peligro de extinción, tanto de flora como de fauna. En Latse mismo, se aprecian los restos de una antigua fábrica en la que se elaboraban productos tan diversos como alcohol, vinagre, alquitrán, carbón vegetal, etc... Además, el monumento a Txirrita, sito en las cercanías del caserío en donde nació el bertsolari hernaniarra, nos da la bienvenida.



**D** **Artamugarriak.** Artamugarriak Urumeako bailaran hain ohikoak diren saroen erdialdea adierazten duten harriak dira. Saroe edo saroi bezala ere ezagunak ziren gunen hauen jatorria oraindik ere zalantzakoa den arren, aintzina, basogintza-guneen baitan esparru "libre" garrantzitsu bat ziratekeela uste da. Ibilbide honetatik gertu aurki ditzakegun artamugarriak hauek dira:


**Akola:** gure ibilbidetik kanpo, Akola baserriko lurretan dago kokatua eta oraindik ere ongi kontserbatutako dago. Ikertzaileek adierazi dutenez, saroeak gune eguteren eraiki ohi ziren beti ere. Kasu hau, horren adibide garbi bat izan daiteke. Artamugarria erreferentziatza harturik jartzen ziren baztermugarriak ikus daitezke oraindik ere, baserriaren inguruan. **Alkatxurain:** Egun errepidea eta Alkatxurain baserriaren artean aurkitzen den ur-askaren parte da eta garai batean inguruarua saroea izanaren aztarna da.

**Mojones de sel.** Los "artamugarriak" son unos mojones de piedra muy utilizados en el valle del Urumea y que indicaban concretamente el centro del sel ó recinto. El origen de éstos seles es todavía incierto. Sin embargo se piensa que antiguamente delimitaban un recinto "libre" dentro de un entorno de explotación del bosque. En las proximidades de éste recorrido podemos localizar dos mojones de éste tipo, en concreto: **Akola:** Alejado un poco de nuestro recorrido y sito dentro de los terrenos del caserío Akola. Bien conservado hoy en día. Tal y como los investigadores apuntan que era costumbre hacerlo, está situado en un lugar muy soleado. Incluso alrededor del caserío se conservan todavía algunos de los mojones exteriores que se ponían tomando como referencia el central. **Alkatxurain:** Situado en una de las esquinas del abrevadero que hay entre la carretera y el caserío Alkatxurain, éste mojón es el vestigio de la presencia de un sel en dicha zona.



**B** **Usoko erreka presak.** Jauzi natural baten goialdean eraikia, Usoko erreka presak Latseko ola zaharrera zihozten urak desbideratzen zituen. Erreka eramateen zuen uraren indarra baliatzen zuten, elektrizitateko ezean, euren produktuen ekoizpenerako.

**Presa del arroyo Usoko.** Construido sobre un salto natural, mediante ésta presa se desviaba el agua del arroyo Usokoerreka para llevarla por una canal hasta la vieja fábrica de Latse. A falta de electricidad, aprovechaban la fuerza del agua para la fabricación de sus productos.




**E** **Ola zaharrera doan kanala.** Latse auzoan bertan tximini handi baten itzalpean aurkitzen da Ola Zaharrera urak eramateen zuten kanala, egun zailtasunez bereizten da. Kanalak Usokoerreka goialdean dagoen presa edo uharkako ura lantegi zaharreraino eramateen zuen.

**Canal de agua hacia Ola Zahar.** Este canal, hoy día difícil de distinguir en el terreno, llevaba el agua desde una presa sita aguas arriba en el arroyo de Usokoerreka hasta la fábrica vieja sita a la sombra de una alta chimenea en un barrio de Latse.



**Natura errespetatu ezazu,  
denon ondarea da**

**Respetar la naturaleza, es  
patrimonio de todos**



## Nondik hasi Punto de partida

Hernani eta Goizueta herriak lotzen dituen GI-3410 errepidearen 6,4 kilometroan Latxe etxea dago eta ibilbideak hementxe du hasiera.

El recorrido parte desde la casa Latxe, situada en el kilómetro 6,4 de la carretera GI-3410 que une Hernani con el pueblo navarro de Goizueta.

## Ibilbidearen deskribapen zehatza Descripción del recorrido

### Latxe Latxe

Hernani-Goizueta Gi-3410 bidearen 6,3 kilometroa. Bidetik irtengo gara. Bailaran sartuko gara "Puig 1919-Latxe" jartzen duen etxearen paretik. 100 bat metroara bidegurutze batekin egingo dugu topo.

Km. 6,3 de la carretera Hernani-Goizueta Gi-3410. Abandonamos la carretera para adentrarnos en el valle tomando la pista que sale frente a la casa en cuya fachada pone "Puig 1919-Latxe". A poco más de 100 metros hay un cruce.

### Txirritaren oroigarria Monumento a Txirrita

Txirritaren oroigarriaren alboan, bidegurutze batekin topatuko gara. Ezkerretara gora egiten duen aldapa gogorrari muzin egin, aurrera joko dugu iguera leun batetik gora, erreka zeharkatuz. Pista hau bailaran sartzen da, erreka paralelo doalarik. Erreka zeharkatzea baimenduko diguten zubiak lau aldiz igaroko ditugu, Aiako Harria Parke Naturalaren barruan sartu arte. Ia 2 Km-tara, zubi baten alboan, langa batez babesturik, basoko pista bat eskuinetara ateratzen da. Ez dugu hau hartu behar. Erreka gurutzatuko dugu zubitik, orain arte jarraitu dugun bide berberetik. 100 bat metroara, adi egon beharko dugu, bide nagusitik atera beharko dugu eta.

Cruce-bifurcación junto al monumento a Txirrita. Olvidándonos de la pista que asciende fuertemente a nuestra izquierda, seguiremos recto, cruzando para ello sobre el río, en muy suave ascenso. Esta pista se adentra en el valle paralelo al riachuelo. Atravesaremos en cuatro ocasiones los puentes sobre el riachuelo adentrándonos en el Parque Natural de Aiako Harria. A casi 2 kilómetros, junto a un puente, y protegida por una langa, una pista forestal sale por la derecha. No la debemos tomar. Cruzaremos el río por el puente, por la pista principal que seguimos hasta ahora. A escasos 100 metros, prestaremos atención ya que debemos abandonar la pista principal.



### 2,0km Desbideratzea Desvío

Bide nagusia utziko dugu, ezkerretara aldapa gora egiten duen eta pinuen artean sartzen den basoko pista hartzeko. 100 bat metroara, pisten bidegurutze bat dago: eskuinetara hartuko dugu, eskuinetara gogorki bira egiten duena, alegia. Malda handiko pista honek sigi-sagan egingo du goraka.

Abandonamos la pista principal para tomar una pista forestal que asciende por nuestra izquierda adentrándose en el bosque de coníferas. A escasos 100 metros, hay una bifurcación de pistas: tomamos la de la derecha que gira bruscamente hacia la derecha y zigzagea posteriormente y siempre en fuerte ascenso.

### 2,5km Bidegurutzea Bifurcación

10 minuturen ostean, argigune batera iritsiko gara eta berriro ere pinutegi batean sartu aurretik, igotzeari utziko diogu ezkerretara doan pista hartuaz. Hemendik aurrera, Akolako atsedenekuraino iritsi arte, belarrak ezkatzen duen pista batetik, ordekan joango gara altuera galdu gabe, bidean gora edo behera ateratzen diren gainontzeko pistei muzin egin. Bi langa metaliko zeharkatu ostean, atsedenekura iritsiko gara.

Tras 10 minutos de ascenso, en un pequeño claro y antes de adentrarse de nuevo en otro pinar, dejamos de ascender tomando la pista que sale por nuestra izquierda. A partir de ahora, y hasta llegar al área recreativa de Akola iremos llaneando sin perder altura, por pista a veces desdibujada por la hierba, haciendo caso omiso a todas las pistas que puedan subir o bajar. Tras atravesar dos langas metálicas llegamos hasta el área recreativa de Akola.

### 3,8km Akolako atsedenekua Área recreativa de Akola

Hemendik, aurretik generaman norabide bera jarraituko dugu eta hiru bat minututan, panelak dituen aparkaleku batera iritsiko gara, bidegurutze batekin topo egingo dugularik.

Desde aquí, siguiendo la dirección que llevábamos y en escasos 3 minutos llegamos al cruce de pistas con un pequeño aparcamiento y paneles informativos.

### 4,0km Akolako aparkaleku Aparcamiento de Akola

Akolako baserri azpiko bidegurutze nagusia. Hemendik, ezkerretara gaztaina arbolez osaturiko baso baten azpitik aldapa behera doan bidea hartuko dugu eta ezkerretara kurba handi bat egingo dugu. 8 minututan Alkatxurain baserriaren albotik doan pista asfaltatu batera iritsiko gara. Baserriaraino gerturatuko gara.

Desde el cruce del pequeño aparcamiento, situado bajo el caserío Akola, tomaremos la pista que, descendiendo, se interna en un bosque de castaños dando una amplia curva hacia la izquierda. En 8 minutos salimos a una pista asfaltada justo un poco más arriba del caserío Alkatxurain. Bajamos hasta el caserío.

### 4,6km Alkatxurain Alkatxurain

Aldapa behera egiteko baserria atzean utzi eta berehala, pista bitan banatzen da. Baina kontuz: guk, bi bideen artean doan bidezidorra hartuko dugu. Basoan sartzen den bide ez oso argi bat da bidezidorra. (Urtaroen arabera sasiz bete egon daiteke. Horrela balitz, ezkerreko pista hartuaz ere, hurrengo puntura iritsiko ginatke). Sei bat minututan, egoera txarrean dagoen egurrezko langa zeharkatu ostean, bidegurutze pista gerturatzen da, zalditegi baten ondoan.

Nada más rebasar el caserío Alkatxurain para seguir descendiendo, la pista se bifurca. Pero, atención: tomaremos un sendero que por el medio, entre ambas pistas, y desdibujado, se interna en el bosque. (Según la época puede estar cubierto de maleza. En tal caso optaríamos por ir por la pista de la izquierda hasta el siguiente punto). El sendero, en poco más de 6 min. y tras cruzar una pequeña langa de madera en mal estado, se asoma a la pista, junto a un establo de caballos.

### 5,1km Asfaltozko pista Pista asfaltada

Baina kontuz: pista hartu eta segituan, pausu batzuk beherago, pista asfaltatu hau berriz utzi egingo dugu, basoan aldapa behera gogorrean sartzen den bidezidorra hartzeko. Beste 6 bat minututan berriro ere asfaltozko pista aterako gara, eta orangoan bai, Txirritaren oroigarria dagoen bidegurutzeraino jeitsiko gara bide honetatik.

Pero atención: enseguida, unos pocos pasos más abajo, abandonamos de nuevo la pista asfaltada para tomar a nuestra izquierda un sendero que baja fuertemente adentrándose en el bosque. Y en otros 6 minutos salimos de nuevo a la pista asfaltada que, ahora sí, la seguiremos bajando por la derecha hasta el cruce del monumento a Txirrita.

### 5,5km Txirritaren oroigarria Monumento a Txirrita

Txirritaren oroigarriaren bidegurutzea. Eskuinera bira egingo dugu, ibilbidearen hasieran hartu dugun bide bera hartuz, bidearen abiapuntura itzultzeko.

Llegados al cruce del monumento a Txirrita giramos a la derecha, siguiendo el camino por el que hemos transitado a la ida, volviendo así al punto de partida.

